

MERKATARIENTZAKO ZERBITZUAK

Itzulpen zerbitzua:

- Testuen itzulpena (mezuak, faktura ereduak, bisita txartelak...) koloretako paper desberdinetan. Doan eta urte osoan zehar.
- Euskarazko testuen zuzenketa.

Baldintzak:

- Edozein eratako establezimendua edo lantokia izatea, ez dugu partikularren itzulpenik onartuko.
- Idazkiak edo testuak zabalpen publikoa izatea.
- Hiru orri baino gehiago ez izatea (katalogoak salbu)
- Testua euskarri informatikoan bidaltzea.

Material idatzia:

- “Zabalik / Itxita” txartela.
- Orduategiak.
- “Erreklamazio orriak” kartela.
- “Merkealdia” kartela.
- “Gabonetako loteria” kartela.
- Gabonetako loteriako txartelak egiteko ereduak.

Errotuluak edota eguzki-oihalak euskaraz jartzeko diru-laguntzak:

- Euskara hutsean idatzitako errotuluak jartzeagatik, prezioaren %50 ordainduko dugu, 350€ gehienez.
- Errotuluak elebidunak badira, prezioaren %30 ordainduko dugu, 200€ gehienez. Betiere, euskaraz dagoen testuak lehentasuna izan behar du.
- Toponimo edota izen-abizenez bakarrik osatutako izenek ez dute diru-laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

Zer egin diru-laguntzak eskatzeko:

- Faktura eta IFKren fotokopia, errotuluaren argazkia, eta kontu korrante baten zenbakia ekarri Euskara Zerbitzura.

Aholkularitza:

Euskararekin lotutako gaien gaineko aholkularitza zerbitzua.

Euskara Zerbitzua
Leioako Udala
Jose Ramon Aketxe plaza, 11. 4. solairua
Kultur Leioa
94 607 25 76
euskarazerbitzua@leioa.net